

## EUSKAL POETAK ETA ARTISTAK G. ARESTIREN OMENEZ -

*Agiriak*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. 21 x 29 zm., 204 orr. Donostia, 1978.

1979. urteko lehen partean aurkeztu zen publikora *Agiriak* eta geroztik salgai dugu.

Hain beharrezko genuen gaurko euskal-poesiaren antologia baten hutsunea betetzera dator euskal-poetak eta artistak G. Aresti zenaren omenez egin duten liburua. Zahar eta gazte, 47 poetaren lanak osatzen bai dute, eta hoiak ederrez hornitzera etorri diren 32 artistaren lanak. Euskal poetek eta artistek Aresti zenaren izena goretzi nahi zuten eta hor ditugu *Agiriak*.

Hilondoko omenez argitaratu den liburu honek 28,5 x 21 zentimetroko neurria daroa eta 204 orrialde ditu. Paper onean eta edergarritz, bilduma txukuna osatzen du.

Liburua Gabriel Arestiri eskainia izanarren, gaiak libre utzi ziren. Horregatik, lanik gehienak, gaiaren aldetik ez dute ezer ikustekorik Aresti zenarekin. Hara hemen liburuan partaide diren poeten izenak: A. Agirreazaldegia, B. Albizu, N. Alzola, A. Aramburu, M. Arregi, F. Artola, "Bordari", J. A. Arze "Harzabal", B. Aurre Apraiz "Aurrantz", J. Azurmendi, X. Azurmendi, A. Bilbao, M. Erdozaincy-Etchart, E. Erkiaga, M. Ertzilla, E. Etxamendi, J. A. Etxebarria "Dirauket", P. Etxebarria, S. I., B. Gandiaga, J. I. Goikoetxea "Gaztelu", Iratzeder, J. M. Irigoyen, Itsubia, M. Iturbe, P. Iztueta, J. Kerexeta, E. Kortadi, D. Landart, G. Lantziri, A. Lasa, M. Lasa, J. M. Lekuona, X. Lete, B. Mujika, A. Muniategi, S. Muniategi, L. M. Muxika, S. Onaindia, Otsalar, M. Pagola, R. Saizarbitoria, I. Sarasola, M. Tejeria, G. Trintxerpe, P. Urkizu, M. Zarate, I. Zubizarreta eta J. Zulaika. Liburuaren azkenean jartzen dira poeten berriak eta izen deituren ondotik, beste zenbait xehetasunen ondoan poesiaz argitaratuak dituzten liburuen berri ere bai. Bertatik ikusten dugunez, zerrendako 47 olerkariok 51 poesi libururen egileak dira, denak gerra ondoren argitaratuak. Horrez gainera beste 3 liburu poesiazko bilduma orokorrez. Hau ikusirik, berriz ere esan beharrean gaude, euskaldunok, irakurtzen dugunagatik, merezi dugun baino literatura aberatsagoa dugula.

Xehetasun hoiari esker, omenezko bilduna honek, irakurgai atseginez gainera euskal-literatura ezagutzeko lagungarri diren anitz berri dakarzki.

Artistenak ordea, izen eta bizilekuak soilik agertzen dira, baina bai bada gauza ikusgarririk liburuaren apainduraz.

Hara hemen liburuan partaide diren artisten zerrenda: J. G. Agirre, L. J. Akerreta, J. Arocena, N. Basterretxea, F. Beorlegi, F. Beristain, K. Bizkarrondo, D. Blanco, E. Txillida, J. Egaña, J. Garro, J. L. Goenaga, T. Hernández, Mendizábal, A. Ibarrola, S. Iñurrieta, I. Larrañaga, V. Larrea, R. Mendiburu, J. Mieg, F. Mirantes, A. Olariaga, K. Ortiz de Elgea, J. de Oteiza, R. Ruiz Balerdi, P. Saint-Esteben, A. Tapia, J. M. Telleria, D. Txopitea, J. Ugarte, R. Ugarte de Zubiarraín, J. Urkijo eta J. L. Zumeta.

Neronek egindako hitzurre labur baten bidez G. Aresti zenaren bizitza eta laneri buruzko berri labur batzuk ematen ditut.

Liburu honetatik, 5.000 ale argitaratu dira, eta aurkezpenean esaten den bezala, *Agiriak* liburuaren 5.000 ale hauek, Erakunde ororen liburutegitan, Ikastetxe eta euskaldunon etxeetan leku bat izanen dute. Euskal-kulturaren zerbitzuan bere bizia bete zuen Arestiren oroimen-arogan guziok haintzat izan dezagun. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala izan da liburu honen argitaratzailea eta ale hoietatik mila alargunarentzat dira, ale bakoitza mila pezetan saltzeko. Nahi duen guziak liburu dendetan eta Euskaltzaindiaren bulegoetan aurkituko ditu salgai.

Euskara hutsean gutxitan argitaratu da holako liburu ederrik, eta, inork merezitezkotan, gure belaunaldi hontan euskal-literatura berritzen hainbeste lan egin zuen G. Arestik merezi zuen. Zordun ginen, eta, horregatik, hor daude *Agiriak*.

\* \* \*